

# KANALAK

Kanalak funtsezkoak dira gure proposamen inklusiboa komunitatearekin konektatzeko, eta bost etapatan komunikatzeko, entregatzeko eta euskarria eskaintzeko: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta saldu ondokoa. Gure proiektuan, komunikazio zailtasunak dituzten pertsoneri egokitutako kanalak diseinatzen ditugu, elkarte, ikastola eta tokiko erakundeekin elkarlanean. Material eskuragarriak, zeinu hizkuntza profesionalak eta ikusizko sistemak erabiltzen ditugu, gure jarduerak, hala nola tailer ekologikoak eta kanpamentu inklusiboak, denengana iristen direla bermatzeko. Horrela, Gasteizen inklusio misioa indartzen dugu.

## 1. Pertzepzioa

Komunikazio kanalak:

- Kanpaina digitalak sortzea sare sozialetan eta Instagram eta Facebook plataformetan, inklusio eta jasangarritasun balioetan oinarrituta.
- Hezkuntza edukia sortzea bideo laburren, informazio posten formatuan, tailerren eta kanpalekuen onurak erakusteko.
- Tokiko hedabideekin eta elkarte inklusiboekin aliantzak egitea, proiektua zabaltzeko.
- Gasteizko ekitaldi komunitarioetan, jasangarritasun-azoketan eta hezkuntza-jardueretan parte hartzea.
- Funtsezko mezua: Inklusioaren eta naturarekiko loturaren konbinazio bakarra nabarmendu behar da.

## 2. Ebaluazioa

- Doako bisitak edo proba-saioak eskaintzea, familiek eta eskolek tailerrak eta kanpalekuak ezagut ditzaten.
- Inpaktu metrikak\* partekatzea (adibidez, erabiltzaileen testigantzak, kasu arrakastatsuak eta labore ekologikoetan lortutako iraunkortasunari buruzko datuak).

- Web orri irisgarri bat sortzea, zeinu hizkuntzan edo azpigituluetan deskribapen argiak eta bideoak dituena, guztientzako irisgarritasuna ziurtatuz.

### 3. Erosketa

#### ❖ Salmenta kanalak:

- Tailerrak edo mintegiak erregistratu eta erosteko online plataforma, zalantzak argitzeko kanal anitzeko euskarria duena (telefonoa, helbide elektronikoa, lineako txata).
- Lankidetzazuzena ikastolekin eta hezkuntza erakundeekin, taldeko inskripzioak kudeatzeko.
- Erkidegoko bazkideei edo programa batean baino gehiagotan parte hartzen dutenei deskontuak eskaintzea.
- Zatika ordaintzeko aukerak ezartzea, programa luzeagoetan izena ematea errazteko, hala nola kanpalekuetan.

### 4. Entrega

#### ❖ Banaketa-kanalak:

- Erdiguneetatik garraio egokitua ematea behar dutenentzat, Udalarekin lankidetzan.
- Tailer bakoitzean laguntza baliabide egokituak bermatzea, hala nola zeinu-hizkuntzako teknikariak eta komunikazio-handigarrirako\* tresnak.

## 5. Post-salmenta

- Etorkizuneko tailerretarako edo deskontu berezietarako lehentasunezko sarbide gisa onura eskusiboak dituzten bazkideen komunitatea sortzea.
- Inkestak eta jarduera osteko foroak ezartzea, atzeraelikadura jasotzeko eta zerbitzuak erabiltzaileen beharretara egokitzeko.
- Hezkuntza-edukia, etorkizuneko gertaerak eta proiektuaren aurrerapenak jasotzen dituzten aldizkari erregularrak bidaltzea, interesa mantentzeko.

## GLOSARIOA

- **Metrika:** Informazio analitikoa emateko neurri bat erabiliz egiten den kalkulua.
- **Komunikazio-handigarria:** ahozko hizkuntza osatzen, babesten edo areagotzen duen edozein sistema, metodo, gailu edo teknologia da, zailtasunak dituzten pertsonen elkarreragiteko, komunikatzeko eta/edo hizkuntza garatzeko modu funtzionala emanez.